

JON FERNANDEZ SAN MARTIN

Datorren urriaren 27an 41 urte beteko dira, Francoren diktaturapean, Burgosko auzitegi militar sumarisimoak heriotz zigorra egotzi zionetik Andoni Arrizabalaga Basterretxeari (Ondarroa 1941-Mont Blanc 1984). Ondarroako Historia Zaleek joan den urtean *Ondarroa 2009* urtekarian bildu zuten gertatutakoaren kontakizuna, bere etxeko eta lagunen testigantzak jasoz, eta Arrizabalagaz batera 1969ko epaiketa hartan egon ziren beste bi ondarrutarren testigantzak be jasoaz, Jesus Mari Aramajorena eta Iñaki Garciarena. Danetara bost izan ziren Burgosko auzitegi militar sumarisimoaren aurrean jarri ziren ondarrutarrak. Aurrez aipatutako hirurez gain, hantxe izan ziren Ignazio Uribe eta Andoni Bedeialaunetabe.

Frankismoak hainbat urte igaro ostean herritar bati ezartzen zion lehenengo heriotz zigorra izanzen Andoni Arrizabalagarena. Sekulako kontra mugimendu soziala piztu zen Euskal Herrian, Espainiako estatuan, zein Europako puntu batzuetan. Presioaren eraginez, Franco diktadoreak konmutatu egin behar izan zion heriotz zigorra Arrizabalagari, haren orde, bi ziar teko kartzela zigorra ezarri. Epaiketa berean, 25 urteko kartzela zigorra egotzi zioten Andoni Bedeialaunetari eta Iñaki Garciari.

Aurretik hainbat atxilotuta izan eta gero, Guardia Zibilak 1969ko apirilaren 3an atxilotu zuen Arrizabalaga. Hurrengo egunean polizia lokalaren auto baten azpian estanda egin zuen lehergailu batek. Bera atxilotuta zegoen orduan, bainahalanetabe berari egotzi zioten eraso haren erantzukizuna, eta eta sumarioa zabaldu zioten Burgosen urte bereko urriaren 27an egingo zen epaiketa militar sumarisimoan.

Hurrengo urteko abenduan Burgosko Prozesu entzutetsuan gertatuko zenaren aurrekaria izan zen Arrizabalagaren kasua. 1960ko eta 1970ko hamarkadetakoa aktibistentzat erreferente zen Enest Mandel politikari belgiarrak *Frankismoaren amaiera* deitu zuen Burgosko prozesua. Baina, izatez, amaiera hori urtebete lehenago, 1969ko urrian hasi zen, Arrizabalagaren kasuagaz.

Erresistentzia eredu

Diktaduraren aurrean erresistentzia eredu izan zen ondarrutarra. Burgosko auzitegi militarreko presidenteak behin eta berriz deitu zuen deklaratzera epaiketan: «Antonio Maria Arrizabalaga Basterretxeal». Bigarren aldiz deitu zionean be ez zen aulkitik jaiki. Azkanean, tente jarri eta hauxe esan zion, euskaraz: «Ni Arrizabalagatar Andoni naiz. Tribunal hau ez dut onartzen, eta ni bakarrik herriak epaituko nau!».

1969ko urriaren 27an heriotz zigorra egotzi zioten Andoni Arrizabalagari, baina presio sozialak eraginda, konmutatu egin zioten zigorra; Burgosko prozesuan gertatuko zenaren aurrekaria izan zen.

Heriotz zigorrari planto

Epaitegi aretoko aztoramendua sekulakoa izan zen. Epaimahaimilitarreko kideak ez zueden ohituta horrelako erasorik jasotzera. Jesus Mari Aramaiok gogoan du: «Orduantxe muntatu zen kristona! Jendea ohiuka hasizen. *Txakur* raka sableak ateranahian... ezin sa- blerik aterata... negarrak, aulk bat behan ketankateatu zitzaien fiskalari, epailea bere onetik aterata: *Desalojen la sala!* Geu be atera gintuzten. Andoniriesan nion horrela ezin zela eta berak zera erantzun zidan: *nire burua maite dut, baina maiteago dut herria*».

Epaiketa hartan heriotz zigorra ezarri zioten Arrizabalagari, baina esan legez, presio sozialak zigorra konmutatzea lortu zuen. Eta, beraz, bi ziar teko espetxe zigorra ezarri zioten. Urteetako kartzelaldiaren ostean, ETako militante histori-koa 1977ko apirilean at-zen azkanik kartzelatik, amnistia emonda. Harrez gero, bere borroka ideologikoagaz jarraitu zuen, bere zale- tasunekin be jarraituz. Mendia zuen maite, askatasuna maite zuen legez. 1984ko abuztuaren azkan egunean, Mont Blanceko Couloir Gervasutti eskalatzen zegoela, elur jausi baten ondorioz hil zen.

'Itziarren semea'

Andoni Arrizabalagaren irudia ezaguna egin zen Euskal Herri osoan, batez be, Telesforo Monzon politikariak *Itziarren semea* olerkia idatzi

eta Pantxoa eta Peiok kanta bihurtu zutenetik. 1968an 22 egunetan Zarauzko komisaldegian Jesus Muñecas kapitain gaztearen agindupean jasan zituen tortura bortitzak kontatzen dira kantuan.

1977ko maiatzaren 22an Argia astekariaren 739. zenbakian horrela kontatu zuen Andoni Arrizabalagak berak Joseba Sarrionandiak egindako elkarrizketan: «1964an detenitu ninduten lehen- dabizi, pintada batzu- k a i t i k .

Hiruegu- nez Bilbon tortu- ratua izan n i n t z e n . Handik *La- rrinage* kar- tzelara eroan

ninduten, eta 22 egunera aske utzi ninduten. Bigarreneguz, Ondarrun, 1968an harrapatu ninduten, eta ezer galdetu barik, hamar bat guardia zibilen artean kolpeka hasi zitzaizkidan. Zarautzera eroan ninduten, Gipuzkoan *estado de excepción* zegoelako, horrela de- tentzio egunak gehitzeko, 8 egunerak. Hida- go eta

hauek torturatu ninduten,... ki- ro- fanoa, eta abar. *La Salven urkatze* simulakroak be jasan ni- tuen».

